

## IKT 3. MINTEGIA (HHLH-BH)

### LUBERRI SISTEMA

#### AURREKARIAK:

<https://hezkuntza.librezale.eus/wp-content/uploads/2019/12/Bideoa-2019-12-07.mp4>

[Luberri Sistema \(Alex Gabilondoren blog-a\)](#)

[framalistes.org](http://framalistes.org) lekuan erregistratu eta luberri listan inskribatu.

-ACER VERITON M661 edo INVES markako ordenagailuak berriztu programan sartzen dira

-64 bitekoak dira eta BIOS arrunta (legacy) dute.

-Berde txuriak (matxinsaltoak) 32bitekoak dira eta 16.04 bertsioa besterik ez dute onartuko.

-HEZKUNTZAK erositako ordenagailu gehienek BIOS arrunta (legacy) dute.

*-Salbuespena:* DBHko irakasleentzat iristen ari diren ACER eramangarriak eta ikastetxeek beren kabuz erositako ordenagailuek BIOS (U)EFI izango dute (baina kasu gehienetan, BIOSaren konfigurazioan sartuz gero, posible izango da 'legacy' modura pasatzea 'security boot' desaktibatuz-Gomendagarria-).

-Ordenagailu zaharrak ikastetxean geratu daitezten eskaera **Aitor Iriarte**-ri egin behar zaio idatzi baten bidez, bertan adieraziz Luberri Sistema ezartzeko direla eta Windows XP kenduko dela guztietatik (noski, mantenua galduko dute).

Egun on,

Hau da Informatikako Zerbitzu burua den Aitor Iriarte-ren posta elektronikoa:  
**huissinf@euskadi.eus**

Berriztuko ordenagailuak mantendu nahi dituztenek idatzi behar diote

## IKT 3. MINTEGIA (HHLH-BH)

ziurtatuz Windows kenduko dutela, badakitela mantenutik kanpo daudela eta saiatuko direla horien ordeztu bazterturik dituzten beste ordenagailu zahar batzuk bueltatzen.

Alex

BERRIZTU programa bi fasetan ari dira antolatzen:

1. FASEA martxan dago. Berriztatzeko 20 ordenagailutik gora dituzten ikastetxeetan.
2. FASE urtarriletik aurrera. Berriztatzeko 20 ordenagailutik behera dituzten ikastetxeetan.

-Gutuna iristen denean Berriztuko diren ordenagailu kopurua ikastetxean dauden ACER VERITON eta INVES ordenagailu kopuruarekin bat datorrela ziurtatu. Ezezkotan, erreklamatu.

-Iristen direnean kokatu eta teknikariaren zain geratu, berak sartuko ditu domeinuan.

### INSTALAZIOA EGIN AURRETIK EGIN BEHARREKOAK:

([Gogoratu Alex-en blogan dauden instalazio pausuak](#) atalean argibide gehienak topatuko dituzula.)

-Deskargatu [luberrri 18.04.6 64bit.iso](#) bertsioa.

-Abio-USBa Ubunturen bidez sortuko dugu dugu iso irudia erabiliz: Aplikazioak > Sistemaren tresnak > Administrazioa > Abio-disko sortzailea. (Windows-en bagaude [Rufus](#) dohainiko programarekin egingo dugu).

-Berrabiarazi usb-a ipinita dagoela eta F12 sakatuz BIOS-era joan aukeratzeko abio modua.

-SystemBack programak instalazio ala live modua aukeratzeko eskatuko dizu. *Boot Live system* aukeratzeko dugu partizioak berriak egiteko.

600GByteko Disko gogor bat horrela partituko dugu (Windows XP ezabatuko dugula gogoratu):

swap-linux: 6145 MiB /dev/sda1

## IKT 3. MINTEGIA (HHLH-BH)

/: 30725 MiB (ext4) /dev/sda2

/home: <beste guztia> (ext4) /dev/sda3

Aplikatu aldaketak eta berrabiarazi.

[Gogoratu Alex-en blogan dauden instalazio pausuak](#) atalean argibide gehienak topatuko dituzuela.